

UDALAREN KIROL ZERBITZUAREN KODE ETIKOA

ANTSOAINGO UDALA

Antsoainen, Udalaren Kirol Zerbitzuak, huraxe osatzen duten kirol erakundeek, kirol jardueretako teknikariok eta erabiltzaileok nahiz familiok kode etiko hau sinatu dugu, bai eta kodearen oinarrizko arauak ere:

1.- Kirola, jarduera fisikoa baino zerbait gehiago da; halaxe ulertzen dugu. Izan ere, kirola adiskidetasuna, bizikidetzatza, errespetua, berdintasuna eta jende ororen integrazioa da, edozein delarik ere jendearen arraza, sexua, sexu-joera, erlijioa, hizkuntza eta jatorria.

2.- Kirola lehiaketa baino zerbait gehiago da. Kirola, batez ere, aukera-berdintasuna, partaidetzatza, josteta eta ahalegina da.

3.- Pertsonak entrenatzen ditudanean edo kirol-prestakuntza ematen diedanean, ez natzaie oldarkortasunez eta irainka mintzatuko, eta ez diet hitz zakarrik esango, ez entrenamenduetan, ez lehiaketa saioetan. Era berean, ez dut esango inolako esamolde arrazistarik eta matxistarik, ezta jendearen sexu-joera eta/edo erlijio-joera gaitzesteko esamolde iraingarrikerik ere.

4.- Harmailetan, ez naiz oldarkortasunez arituko, ez arbitroen aurka, ez lehiakideen aurka, ez aurkarien zaleen aurka, eta ez diet esango hitz zakarrik, inolako irainik eta/edo inolako esamolde arrazistarik eta matxistarik, ezta jendearen sexu-joera eta/edo erlijio-joera gaitzesteko esamolde iraingarrikerik ere.

5.- Antsoaingo erabiltzaile, teknikari eta kirol erakunde guztiek zaindu egin beharko dute kirol jarduera egiteko erabiltzen ari diren instalazioa, bai eta aldagelak eta kirola egiteko erabiltzen den kirol materiala ere.

6.- Era berean, Udalak bermatu egin beharko du kirol instalazioen, aldagelen eta kirol materialaren mantentze egokia.

7.- Kirol jardueretan aritzen direnek behar diren bitartekoak izanen dituzte eskura, egokitzen jotzen duten kontu oro helarazteko Antsoaingo erakundeei eta/edo Udalari, kasuan kasuko jardueraren praktikari dagokionez.

8.- Antsoaingo kirol erakundeek eta Udalak ahalik eta lasterren erantzun beharko diete erabiltzaileen eskaerei, horretarako moldatu diren bideak erabilita.

9.- Udalaren Kirol Zerbitzuak, zerbitzua osatzen duten erakundeen bidez, kirol jardueraren jarraipen zehatza bermatuko du, eta Udalaren bitartekoak kirolaren zerbitzuan jarriko ditu kirol jarduerak, emaitzak, albisteak, abisuak eta beste zabaltzeko.

10.- Kode etiko hau sinatu duten alde guztiek hitza eman dute etengabe arduratuko direla Antsoaingo kirola duintzeaz, eta kirola lehen mailako eta babestu beharreko gizarte ondasun gisa hartuko dute aintzat.